

Etxepare

Joxean AGIRRE

Gizonok ere aldi berean bi gauza egiteko gai garela frogatzeko edo, askotan ordenagailua mahai gainean dala egunkarien PDFak irakurriz egin ohi dut bazkaria. Etxepareren semearen aurkikuntzarena GARAn irakurri nuenean ez nintzen batere harritu, “Emazten fabore” lehen aldiz irakurri nuenetik bainekien apaiz horrek maitaleak zituela. Etxepareren erotismoa zakar samarra izango da, bere garaikoa, cishetero-nahi duzuen, baina benetako da eta koxka ateratzen die, arlo horretan bederen, ondoren etorri ziren gure apaiz idazleei.

Okerragoa da gure ahozko tradizioan gertatu dena. Erotismoaren zantzuak ezabatuta iritsi zaizkigu, eta arrazoiak biltzen ibili ziren apaizengan atzeman uste du Anjel Lertxundik, bere “Berbe-

litzen hiztegia”-ren “E” letran hau dioenean: «Nor ausartuko ezer erotikoa kantatzen edo kontatzen Azkue (edo Aita Donostia edo Antonio Zavala) sotana soinean zeraman apaiz ahots grabeari?».

Utzi nuen GARA eta pasatu nintzen “Berria”-ra eta, neska gazte feminista politologo bati egindako elkarrizketa gainetik begiratzen hasi orduko, honako esaldi honekin egin nuen topo: «Bostere berdintasunak eskatzen du irudikatzea etorkizun bat zeinetan sexuak ez diren existituko». Izutu egin nintzen pixka bat. Erdi Aroan paradisuan aingeruek pixa egiten ote zuten eztabaidatzen ematen zituzten orduak eskolastikoei. Guk gaztetan klase diferentziarik gabeko etorkizun komunista bat posible ote zen eztabaidatzen galdu genuen denbora. Generoak diluitu-

ta bai, irudika nitzakeen etorkizunean, baina sexurik gabe? Egun horretan, emaztea etxean zegoela aprobetxatuz, joan eta irakurri nion esaldia, eta «zer-gatik irakurtzen dituzu gauza horiek?», aurpegiratu zidan, «etorkizunean beharbada politologorik ez da egongo, baina sexuak beti egongo dira», erantsi zuen, eta lasaiturik itzuli nintzen mahaira, eta jarraitu nuen Erronkariko gazta zati bat Arabako ardoarekin lagunduta jaten, 0 km-arekin batean lurraldetasuna ere izan behar baita kontuan, eta Etxepare irudikatu nuen auskalo Irulegi aldeko zein ardo mota edan ondoren “Jo beza dardoaz ere gorputzaren erditik/ ainguruiak bano hoboro ez lerrake gaizkirik/ baina dardoa ematurik, zauri ere sendoturik / bere graziaz ezartzen tu elgarrekin bakterik”, idazten. •

Negua sorpresan

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Ahaztu egiten zait batzuetan, giro onarekin pasatzen badi-tugu hiru edo lau egun jarraian, zeru honek hemen inguruan euria zarra-zarra nola jaurtitzen dakien, guztia izozten nola asmatzen duen, argitu ahala ilundu nola egiten duen bere kolorea. Ahaztu egiten zait eta harritu egiten naiz, azaroa-abendua-hotza-hasten-den-garaia iritsi eta, ustekabea, gauzek nola funtzionatzen duten gogoratu beharrean naitzen. Neguak sorpresan harrapatzen nau beti-beti.

Eta beraz, aurten ere ahaztuta nengozen zer jantzten den oinetan horrela-ko giroarekin, eta ze jertse, ze txaketa,

zer egiten den etxera iritsi eta esku hoztuak goxatzeko, zer eskatzen den arratsaldeko seietan kafetegi batean, zer egiten den lagunengana joan nahi dugunean baina pijama erantzi ez, ze plan egin daitekeen planik egiteko gitorik ez dagoenean, ze posturatan heldu behar zaion aterkiari gu ez bustitze-ko eta gure motxila ere ez, zer afaltzen den astearte hotz-hotzetan, zenbat mantarekin egin behar den lo haren pean ondo sentitzeko, eskularruak noiz bai eta noiz ez...

Lehengo batean enteratu nintzenetik abenduan sartu ginela, hiruzpalau egun eman ditut etxean, flanelazko pijama, galtzerdi potoloak, buff-a, etxeko

bata, infusioa eskuetan, artilezko manta magalean, pelikulak telebistan. Bestela zer egin nezakeen ahaztuta. Eta erabaki dut ez dudala hori egin nahi negu osoan zehar. Guk ere harrapatu dezakegula negua sorpresan. Durango-ko Azoka hemen dela eta hango hotza ez dela inoiz hain hotz desatsegina. Badaudela aukerak planak egiteko eta negua negua dela, baina ez direla hainbeste gauza aldatzen neguan.

Zeru honek jaurtiko du euria zarra-zarra, izoztuko du guztia, argitu ahala ilunduko du bere kolorea, eta, hala ere, zeru honen pean, ahaztu egiten zaigun arren batzuetan, giro ona eta giro txarra jendeak sortuko du. •